



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Aipatu bezala; GAIU-n, ez gara bezero edo kolektibo konkretu batean zentratuko. Ez dugu genero, adin edo inolako bereizketarik egingo, bezero bakoitzak libreki aukeratu dezan gustuko duen eta behar duen produktu bakoitza.

Horrela; merkatua zabaltzeaz gain, **aniztasuna bultzatzen** ahaleginduko gara. Aniztasunaren barruan, hala ere, **ingurumenarekin konpromisua** dutenak izango dira gure erosleak, klima aldaketaren aurka borrokatu nahi dutenak.



Baita ere **diseinuzko produktu** original eta pertsonalizatuak gustatzen zaizkienak. Azken finean; betiko produktu komertzialetatik kanpo zerbait desberdina bilatu nahi duten erosle **alternatiboak** izango ditugu.

Aldi berean; **inbertsioa egiteko prest** dauden eta gai izango diren erosleak izango ditugu. Izan ere; hasieran batean, garestiak iruditu ahal direlako gure produktuak. Baina azken finean epe luzera begira, berriz erosi beharrik ez dute izango, berrerabili daitezkeelako.

Orokorrean; gure proiektuaren oinarrietako bat izango da bezero hauen nahi eta beharrak asetzea. Gure taldeko edo proiektuko zati handi bat izango baitira.